# ON LINE IZENA EMATEKO TUTORIALA

# UDAL-IKASTAROAK 2022-2023

## NOLA ERREGISTRATU

Izen-emateak hasi baino egun batzuk lehenago, **barañain.eus** udal-webgunean sartu ahal izango zara, eta **"IZENA EMATEKO SISTEMA BERRIRA SARBIDEA"** zuzenean KLIKATU.

Programan *sartu* eta *izena eman* ahal izateko, «Erregistratu» hitza sakatu beharko duzu.
«Identifikatu gabe sartu» ere sakatu dezakezu; hala, ikastaroak, jarduerak, ordutegiak eta abar ikusi ahal izango dituzu, baina ezingo duzu inolako kudeaketarik egin, ezta inskripziorik ere.




**Programan NOLA ERREGISTRATU:**
Jarraian zehazten da "Erregistratu" aukera klikatzean agertuko den pantaila:

- Erregistratzeko, segidan zehazten den inprimakia bete beharko duzu, baldintzak onartu eta botoia sakatu. Ondoren, mezu elektroniko bat jasoko duzu, eta bertan ikusiko duzu ze urrats eman behar dituzun erregistroa berresteko.







- TITULAR GISA ERREGISTRATU: norberarentzako inskripzioa.
- ONURADUN GISA ERREGISTRATU: beste pertsona batentzako inskripzioa (*adib.: seme-alaba batena).*

Lehenik eta behin, <u>titular gisa edo onuradun gisa jarduten duzun adierazi beharko duzu, eta, ondoren, datu guztiak bete beharko dituzu, baina erregistro berri bat egin behar duzu beti onuradun bakoitzeko eta datu pertsonalak idatzi bertan</u>.




- Legezko baldintzak onartu eta "Onartu" botoiari eman eta gero, mezu elektroniko bat jasoko duzu emandako helbide elektronikoan, eta esteka bat izango duzu erregistroa berresteko.
  ………………………. *estimatua, erregistroa berresteko, honako esteka honetan klikatu*: <u>XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX</u>

- Esteka hori klikatzen duzunean erregistroa ongi egongo da, eta BETI sartu ahal izango zara programan, zure identifikatzailea (posta elektronikoa) zein pasahitza betez eta SARTU klikatuta.

## IZEN-EMATEAK

- Izen-emateak ezarritako egun eta ordutegietan egin ahal izateko, **<u>barañain.eus</u>** udal-webgunean sartu beharko duzu, eta "IZENA EMATEKO SISTEMA BERRIRA SARBIDEA" KLIKATU.
  Hasierako pantailan bete beharko dituzu identifikatzailea (erregistratzeko erabili duzuen posta elektronikoa) eta pasahitza, eta "SARTU" klikatu.

- Orduan, pantaila batera sartuko zara, eta, bertan, honako arlo hauetan eman dezakezu izena:
  KULTURA / LIBURUTEGIA
  KIROLAK
  TELEZENTROA




  Intereseko arloan sakatuz gero, arlo horrek programatu dituen jardueren zerrendara sartuko zara.
  Izena eman nahi duzun ikastaroa hautatzeko eskuineko estekan jarri eta klikatu, banku-txartelaren bidez ordainketa-sistema hasi ahal izateko.

- Aukeratu duzun ikastaro horretan plazarik ez bada geratzen, itxaron zerrendan izena emateko aukera izango duzu. Horretarako, zure intereseko arloaren estekan sakatu beharko duzu (Kultura/Liburutegia, Kirolak edo Telezentroa), eta, gero, klikatu “Itxaron zerrendan alta eman”; edo alderantziz (klikatu “Itxaron zerrendan alta eman” eta hautatu zure intereseko arloa).



- IKASTAROA, zeinetan izena eman nahi baituzu, hautatu:




| Klase-kodea | Klasea | Hasierako data | Azkeneko data | Plazak | Libreak | Deskribapena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| PRUEBA | PRUEBA | 2022/10/5 | 2023/1/25 | 2 | 2 | |

- Hautatu JARRAITU




- Hautatu EROSKETA BERRETSI




- Izen eman eta dagokion ordainketa egin eta gero, emandako posta elektronikoan jasoko duzu aukeratutako ikastaroan behar bezala izen-eman duzulako baieztapena.